## ALTZAKO HERRIARI

Enteratu garenez, jai bikainak prestatu dituzue hil honetarako (idazki hau jasotzen duzuenerako, bukatuak seguraski), Harri Berri, Harri Zahar Roteta eta Sta. Bárbarako jaiak, hain zuzen, "Harria"ko jaiak beste izenez. Guk sekula ezagutu ez ditugun festak dira hauek eta horrexegatik ezer gutxi esan dezakegu bere edukin edo girotaz; hori bai, ederki deritzogu lau auzoak batera joatea horrela herri giroa, Altza herriaren kontzientzia, sendotzen bait doa. Onuragarri deritzogu denak batera jaiak ospatzea baita herri erreibindikaziotan ekitea ere. Horregatik, oso adierazgarri eta egokitzat hartzen dugu "Harria" su hartutako baserria jai hauen gune bezala kontsideratzea, gisa honetako erreibindikazioak bait dira herri osoa, Altza osoa, mugitu eta elkartu beharko luketenak. Drogaren arazo larria, inguru berdeen beharra, euskararen hedapena etab, denori dagozkigu; guri, zuei, zaharrei, gazteei, umeei..., denori. Ia benetan lortzen dugun herri sendimendu hau erabat bizkortzea.

Eta, noski, preso gaudenez guri eta Askapenerako Mugimendu osoari dagokion errealitate bizia aipatu beharra dugu berriz ere. Egunotan, urtemuga berezia dugunez, Amnistiaren Aldeko kanpaina jo ta ke dihardu kalean barna. Orain dela 10 urte garrantzizko gertakizunak suertatu ziren gure herrirako; Gestoren sortze eta indartzea, errepresiaoaren aurrerapausu berezia, kartzelak hustu eta berehala betetzea... Eta gaur egungo momentu zehatzena begiratzen badugu bestelako koadro honen aurrean aurkitzen gara: udako errepresioaren areagotzea ("banderen gerla", jaietako errepresioa...), ia urtebete frantses gobernuak kolaborazio errepresiboaren bidea, espetxetu ekiko sakabanaketa politika..., ditugu, besteen artean, aurrez aurre koarazo eta apostu gogorrak.

Ofentsiba latza, ematen duenez, gure gainean duguna eta datorkiguna ere. Badaki etsaiak ez garela edonola makurtuko eta horregatik ekiten dio ohizko bideari, errepresioari. Goizago edo beranduago onartu beharko dute gure herriaren bizitasuna eta askatasunerako grina, baina bitartean gogor eutsi behar diogu gure bideari eta gure martxari.

Hemen ere, espetxe barnean, hortan gaude. Urte bete daramagu errefuxiatuz betetzen ari direla espetxe guztiak, baina honek ez du mugimendua makur arazi. Era berean, presoen sakabanaketari ekin diote aurten, presoen elkartasuna eta indarra ahuldu nahiz, baina erraturik dabiltza; damuketa politikaren porrota onartzen ez badute ere, sakabanaketa politika bera dugu plangintza horren zentzugabekeriaren froga argiena.

Dena dela, errepresioak tinko jarraitzen badu ere, garbi dago urtetik urtera, egunetik egunera, aurreratzen goazela askatasun eguna. Indarrak sendotzen goaz, gero eta jende gehiago kontzientziatzen ari da prozesoa aurrera doan heinean eta, alderdi erreformistek baztertu nahi bagaituzte ere, irabazten goaz. Orain dela 10 urte baino askoz antolatuago eta kontzientziatuagoak gaude eta lorpenaren garaia begibistan dugu.

Hori dugu bidea, orain arte jarraitu egin duguna: mundu guztia antolatuz eta lanari lotuz, intoxikazio eta faltsukeriari kasurik ez eginez. Uda osoa ibili izan dira "elkarrizketak" edo sasinegoziaketak zirela eta, heuren aurpegi "dialogantea" eta "generositatea" denen gainetik goraipatzen. Baina denok dakigu benetazko negoziaketa bere momentuan emango dela, hau da, Askatasunerako Mugimenduak, erabat sendotuta, hari guztiak hestuki finkatuta dauzkanean. Orduarte ez dezagun inolako "generositaterik" itxaron Estatu zapaltzailearengandik; beti bezala borrotzen jarraituko dugu nahitaezko egun hori iritsi arte.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu NAEMen organizatzea, HB, KAS, Gestorak, herri mobilizapenak etab, bultzatuz eta landuz. Sekula baino garrantzi haundiagoa dauka gaur egun denok ondo mentalizatzea eta prozesoaren barne parte aktibo hartzea: datozen urteak kakotzat hartu behar dira abertzale guztiontzat eta datozen gertakizunetan denok izan behar dugu protagonistak.

Animo, bada, eta tinko eta alai jarrai, zein jai hauetan zein eguneroko bizitzan, desiratzen dugun Altza, Euskal Herria eta gizartea lortu eta finkatu arte.

Herrera de la Mancha 87ko irailan

Altzako presoak

## AL PUEBLO DE ALTZA EN EL "HARRIAKO JAIAK"

Kaixo a todos y un montón de ánimos, que no creemos que os harán falta, para los que estaís en plenas fiestas de "Harriako Jaiak". Nos hemos enterado que este año os lo habeís montado por todo lo alto y habeís echado la casa por la ventana para organizazar (por primera vez, que recordemos)unas fiestas conjuntas entre Roteta, Harri-Berri, Harri-zahar y Sta. Bārbara, tal y como está mandado y como deberían de ser todas las fiestas de todos los pueblos: en conjunto y con martxa a tope. Aunque nos encontremos a cientos de kilómetros de vosotros, no os penseís que andamos tan colgados como para no interesarnos por todas las movidas que tienen lugar por ahí; qué va, eso es lo que quisieran los que nos mantienen aquí emparedados, pero por suerte la relación entre el mako y Altza es más estrecha de lo que parecería por el tiempo que llevamos alejados de vosotros.

Está visto que no perdeís el tiempo a la hora de organizar cosas majas a todos los niveles. El mismo nombre de las fiestas, "Harriako Jaiak", indica a la perfección la característica de estas fiestas: aparte de ser una fiesta con todas las de la ley, es conjunta y con un contenido concreto, la reivindicación del caserío Harria y su zona como parque o zona verde, etc. Con ello es claro que se sobreentienden otros problemas y reivindicaciones: la toma de conciencia de Altza como pueblo que tiene que hacer frente a problemas tan gordos como el de la droga, las zonas verdes, la euskaldunización, etc, etc, problemas que conocereís y vivireís mucho mejor que nosotros.

Bueno, y qué os podemos contar nosotros, en una situación tan especial y tan alejados como nos encontramos de la realidad concreta de Euskal Herria? En el comunicado en euskara hacemos una especie de análisis de la situación política en estos días, tal y como lo vemos nosotros. Más que nada hacemos hincapié en la marcha actual del proceso de liberación de nuestro pueblo; hacemos referencia a las actividades y la campaña propulsadas por las Gestoras pro Amnistía, tras los 10 años de su creación; hablamos, también, de la actuación de los de siempre tan represiva o más que siempre, como hemos visto este verano, etc. Son realidades que sentís tan vivamente como nosotros y a los que estaís dando una respuesta tan fenomenal. Y os decimos qu ése es el camino a seguir, el que hemos seguido hasta ahora a pesar y por encima de todas las intoxicaciones y falsedades que nos quieren hacer tragar. Todavía nos espera un duro trecho a superar, pero cuanto más bravamente incidamos en la borroka diaria tanto más conseguiremos, y merece la pena porque es mucho lo que podemos conseguir y, además, mucho antes de lo que piensan algunos.

También os hablamos de nosotros, de los problemas que tenemos últimamente aquí dentro, de las dispersiones de compañeros por diversas cárceles del Estado pretendiendo así debilitar nuestra fuerza y cohesión como colectivo, una vez que han fracasado estrepitosamente en sus medidas de arrepentimiento. Como vereís, son broncas que, a fín de cuentas, nos atañen a todos y que van dirigidos a todos y cada uno de los que formamos parte del MVLN. ¿Y qué es lo que vemos que habría que hacer?. Pues lo de siempre, pero con más convencimiento que nunca, atendiendo a los tiempos que corren y a la importancia que tomarán los diversos acontecimientos relacionados con nuestra lucha durante los próximos años: organizarse en los diferntes organismos que conforman el MVLN (HB, KAS, Gestoras, movimientos populares...) y currar todos en los diversos aspectos de nuestra vida, desde las relaciones humanas más sencillas hasta la bronca frontal contra la represión y el engaño en todos sus aspectos.

Animo, pues, y que no decaiga. Sabemos que últimamente estamos llegando a niveles de organización y clarificación dificilmente pensables hace 10 años y ésto nos reafirma una vez más en nuestra linea y en la confianza ilimitada en todos vosotros. A ver si a la vuelta a casa conocemos una nueva Altza con parques, con una juventud esperanzada y no enganchada a la droga u otro tipo de enganches falsos, un ambiente euskaldun a tope y una conciencia de pueblo unido y profundamente solidario. En nuestras manos está el conseguir todo eso en un plazo más o menos inmediato porque, verdaderamente, merece la pena.

Desde esta colonia euskaldun en la Mancha, saludos y abrazos para todos y que lo paseís tan fenomenalmente bien como os sea posible. Unidos en la fiesta, en la borroka y en la esperanza

presos de Altza.

Herrera de la Mancha Septiembre 1987